



“Sare sozialetan gabiltzanok denbora gehiagoz elkartzen gara bizitza fisikoan”

Mikel Iturria | aka Iturri

Ez dago Donostian kultur ekitaldirik bera gabe.

ARITZ GALARRAGA

Argazkia: Dani Blanco

Hona euskal blogosferako gizon handia!

Barkatu? Horrela segituz gero beste abokatu baten bila jo beharko dut.

Tira, aitzindaria behintzat bai, edo beteranoa.

Lehenengo euskal blogaria Jabi Zabala izan zelakoan nago. Luistxo Fernandezek akuilatuta hasi ginen gu eibar.org elkartearen blog komunitatean, 2004ko uztailean.

Esan, mesedez, sarean behintzat euskaldunok ez gaudela hain gaizki.

Gure txikitasunean euskara Interneteko lehen 50 hizkuntzen artean dago. Gauzak egin dira, baina hobeto aritu beharko dugu etorkizun hurbilean.

Etorkizuna sarean badago, beraz, etorkizun beltza gurea?

Gure esku dago. Elkarri mokoka ibili beharrean elkarrekin aritzeko erreminta aparta da sarea. Gai izango ote gara? Horrela atera gaitzke bizirik ataka honetatik, baina euskaldunok zomorro fama handia dugu.

Blogean “agit & prop” egiten duzula dio, baina ez ote den denbora pasarako aitzakia.

Asko gustatzen zait niri etiketa hori. Eta horretan ari naiz, buru belarri.

Blogak zer aukera du, bada? Zerbait eraldatu, iraultza egin?

Eta poesiak? Kanta batek? Telebista ere erreminta ona da, baina gutxi batzuen esku dago eta kaka zaharra da. Blog bat bost minutuan

egin daiteke eta norbera da editorea inori baimenik eskatu gabe.

Sare sozialak ere badaude: Twitterren bakarrik bost identitate kudeatzen dituzu.

Bai, pertsonala eta Javier Ortiz zenaren kontuak kudeatzen ditut. Beste guztiak lanekoak dira. Ez zait hain zaila egiten. Gizon atipikoa naiz: bi gauza batera egiteko gai naiz.

Twitter, Facebook, Berriketan, Komunikariak: bizitza errealerako tarterik bai?

Sare sozialetan gabiltzanok besteok baino denbora gehiagoz elkartzen gara bizitza fisikoan. Ez dizkizut aste honetakoak kontatuko, badaezpada.

Bizitzarentzat ez dakit, baina Realarentzat hartzen duzu tarte.

Real zalea naiz, bai. Gorroto ditut Barça eta Madrid. Joan daitezela antzarrak ferratzera.

Eskerrak irundarra zaitugun!

Ez naiz irundar naturala: Ventas auzokoa bainaiz. Katekoa beste batzuentzat. Orain Landetxa deitzen diote. 24 urtez bizi izan nintzen Armadaren Kuartel aldamenen gurasoek zuten baserrian.

Eta jakitea Alardeagatik hasi zinela Interneten...

Ez dut inoiz parte hartu Alardean, baina gatazka ulertezina iruditzen zait. Bakoitzak egin dezala nahi duena besteen eremuan sartu gabe. Eta emakumeek atera nahi badute, arrunt ondo. Nik horren alde egin dut. ■